



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Egilea - Auteur : Patxi HIRIART

Iturria - Source : Kattalin Totorikak 2004ko urrian egin elkarrizketa / Entretien de Kattalin

Totorika - Octobre 2004 - Itzulpenak - Traductions : Kattalin Totorika

Urtea - Année : 2004

ZALETASUN BATEN JATORRIA

Bertsotan aritzeko gustua etorri zitzaidan Baionako ikastolan kurtso bat ireki zutelarik. 5. urtean nintzela, talde ttipi bat hasi ginen bertsotan eta geroztik segitzen dut. Karlos Aizpurua Oiartzundarra nuen irakasle. Aitortu behar dut hastapenean amak pusatu ninduela. Gero konturatu nintzen gauzak ikasten direla bertsolaritzarekin. Gainera, gauza berria zen, beste aktibitateetatik desberdina zena. Gero, bertso-eskolak ireki ziren eta klaseak bukatu eta gero biltzen ginen. Karlos Aizpuruarekin egiten genuen oren bat astean bertsolaritzari buruz eta bertso zaharrak lantzen genituen, besteak beste. Gero Kanboko kolegiara pasa nintzen eta han talde berri bat sortu zen : Baionan nirekin ziren batzu gehi beste batzu, hor hasi zirenak. Orai bost gira, lau mutiko eta neska bat. Hastapenean, orai baino gehiago ginen, bidean batzuk uzten dutelako, ez zaielako denei gustatzen.

LEHENGO BERTSOLARIEN ILDOA

Ttipitan ez nuen modelorik, ez dut uste. Aitzinatzen ginen poliki poliki, gure erritmoan. Bertsolaritza jostatzeko zen, gure artean kitzikatzeko, ez bertsolari handi bat izateko. Beraz ez nuen eredu berezirik. Bertsolari batzu ezagutzen genituen : Egaña, Lizaso, bertsolari biziki onak zirelako. Gero, beti pentsatu izan dugu : nik izan nahi nuke Egaña bat bezala, baina... Xalbadorren bertso batzu landu izan ditugu, Xalbador bertsolari biziki ona zelako, eta bere bertsoetan bai umorean eta bai sentimenduetan biziki ontsa ari zelako. Bestela Bilintxenak ere, maitasun bertsoak idatzi izan dituelako bereziki. Momentu honetan horiek lantzen ditugu bertso-eskolan. Gero lantzen ditugu ere oraiko bertsolarienak : adibidez Amets Arzallus eta Sustrai Colinarenak irakurri eta ikusi izan ditugu.

Sustrai eta Amets ereduak dira guretzat. Badu bizpahiru urte bertsolaritzaren gorenean direla eta Euskal Herriko txapelketan ere biak biziki urrun joan zirela, Sustrai finalera eta Amets kasik... agian heldu den urtekoan !



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

SORKUNTZAREN BIDEA

Gaia dudalarik arrazoi bat pentsatzen dut, nire bertsoaren bukaeran eman nahi dudana, jendea bukaeraz oroitzen baita. Gero azpitik hasi eta bertsoa gainera igo behar da, hau da, azken puntua prestatu, arrazoiarena, eta azken puntuaren azalpena eman aitzineko puntuetan. Doinuarena ez da arazo bat, bertsolarien artean hautatzen baitugu eta badakizkigun doinuak erabiltzen baititugu. Batzutan doinu berriak sortzen dira eta guk ikasten ditugu. Nik badut zailtasun gehiago belarri txarra dudalako, baina noizbait ikasten ditut. Zailena da arrazoiaren atxematea. Baina badugu praktika bat, aski handia, eta beti zerbait atxematzen dugu. Bertso-eskolan, gure irakasleak ematen dizkigu teknika batzu : bertsoan hobetzeko, ahotsa hobetzeko nik aski kakola dudalako... Orai, klasearen hastapenean, hamar minutuz, bertso zaharrak lantzen ditugu. Irakurri eta kantatzen ditugu. Horrela ikasten dugu.

LEHEN URRATSAK

Oroitzen naiz taularen gainera igo nintzen lehen aldiaz. Ez dakit noiz zen baina erraten ahal dut Sustrai Colinari bota behar niola agur bat. Ttipi-ttipiak ginen eta horiek bazuten bertso-saio bat egiteko eta nik bota behar izan nion lehen agurra. Nahiz aitzinetik prestatua nuen, beldurra sentitu nuen. Baziren nirekin hiru lagun eta gauza bera egin behar zieten bertsolari desberdinei eta gogorra izan zen. Gero usaia hartzen da, beharrik. Azkenean plazer hartzen dugu. Urte guziz parte hartzen dugu eskolarteko txapelketan, hemezortzi urte artekoentzat. Iparraldean kanporaketa bat egiten dugu eta bi edo hiru joaten dira finalera. Eta horretan bai parte hartu izan dut. Ez da sekulan errega.

BERTSOLARIAREN GAITASUNAK

Bertsolaritzarena ez da dohain baten izatea, praktikatzea da. Bertsolariak, hasteko, euskara menperatu behar du. Bestela, bertsolariak umorea behar du, eta gehienek badute. Eta bertso serioak ere kantatzen jakin behar du, jendea hunkitzeko gisan. Bertso hunkigarriak txapelketarako gehien erabiltzen dira, baina umorea da inportanteena. Bertsolaritzaren historian zehar, gaiak anitz aldatu dira. Lehen kantatzen baitzuten baserriko giroari buruz, edo euskal aberria, tradizioa edo fedeari buruz. Gaur egun, gai guziak hunkitzen dira, hori da aldatu dena, eta bertsolariak eskolatuak dira. Hala ere, baloreak berdinak gelditzen dira. Prentsa irakurri behar da normalki. Irakurtzen ez duenak gero zailtasunak izaten ahal ditu. Liburuak ere irakurri behar dira eta bertso zaharrak landu, hori ere inportantea da. Bertso zaharretan metaforak nola sartzen dituzten, zer arrazoiak ere ematen dituzten aztertzen dugu, ideia batzuren osatzeko.



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

GAI GUSTUKOENAK

Gai guzietan aritzea gustatzen zait. Adibidez irringarria izaten da pertsonaia baten nortasuna hartzea, gureak ez diren ideiak eta arrazoiak ematen ditugulako. Antzerkia bezalakoa da azkenean. Eta gustatzen zaigu horren egitea. Gertatu zait neure iritzia ematea, beste pertsonaia baten azalean nintzelarik ere. Azkenean pentsatzen duguna erraten dugu, ez dugu beste munduko gauzarik asmatzen. Ez dira gauza berdinak erraten publiko gazte eta publiko zahar baten aitzinean, hori guk egokitzen dugu. Iparraldean eta hegoaldean aritzea ere ez da gauza bera guretzat. Gauza batzu aldatu behar ditugu, hitzak edo errateko moldeak egokituz adibidez.

BERTSOLARITZAREN EKARPENA

Bertsolaritzak ekartzen dit lagunekin ontsa pasatzea, hasteko. Kontzientzian dugu euskara bizirik atxikitzen dugula, hori ere garrantzitsua da. Gero, jendearen aurrean mintzatzeko erretasuna lortzen da. Ni berez mutiko lotsatia naiz eta bertsolaritzak ekartzen dit jendearen aitzinean, edo gelaren aitzinean mintzatzeko erretasuna. Bertsolaria ez baita oraindik gauza biziki normalizatua iparraldean, kolegioan ginelarik besteak irriz ari ziren. Bertsolaria ez zen besteak bezalakoa. Orain mentalitateak aldatzen ari dira baina pentsatzen dut Amets, Sustrai eta horien garaioek guk baino gehiago sufritu dutela horretaz. Guk arazorik ez dugu. Nik bertsolaritza orain sartua dut nire bizian, eta bertsolari handia bilakatzen ez banaiz ere, bertsolaritza sustengatuko dut, beste bertsolarien txalotzera joanen naiz bederen. Segur da aisialdian denbora hartzen duela, adibidez Sustrai eta Ametsek asteburu guziz joan behar dute norabait... Gainera entrenatu behar da, astean behin edo bi aldiz. Egia da lekua hartzen duela bizi batean. Baina halako engaimenduaren hartzeko prest nintzateke.

ORAI ETA GERO

Garai batean Ezponda, Alkat eta horiek izan ziren... Eta gero, zulo bat izan zen Amets, Sustrai eta horiek agertu arte, eta bertsolaritza iparraldean kasik galdutzat eman zuten. Orain berriz hasia da eta jendearen buruan sartzen ari da. Dударik ez da Iparraldean bertsolaritza berriz sortuko dela. Garrantzitsua da jende gehiagok ezagutzea... Ez baduzu ezagutzen, ez duzu maitatzen ahal. Bertso bat ona delarik, jendeak maitatu baizik ez dezake egin. Pentsatzen dut jendearen mentalitatean sartzen ari dela. Badira oraino aitzinamenduak egiteko, iparraldean batez ere. Antzerkiak bezala, bertsolaritzak euskara bizirik irauten laguntzen du. Iparraldean antzerkiak baino jende guttiago erakartzen du bertsolaritzak, baina kopurua handitzen ari da, eta horrela segituz, bizirik iraunen du.